

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea landa ondasun higiezin gaineko zergaren 2020ko errolda eta kobratzeari ekitea**

Behin-behineko onespena eman zaio landa ondasun higiezin gaineko zergaren 2020ko erroldari, eta jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunetan, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat joko da, eta kobratzeko aldiari hasiera emango zaio.

Landa ondasun higiezin gaineko 2020ko zerga 2020ko abuztuaren 17a eta urriaren 16a (biak barne) bitarteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango da borondatezko epean.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku erakundearen duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Halaber, zergadunei gogorazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa. Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2020ko irailaren 30ean.

Epe hori igarotakoan premiamendu bidez kobratuko da, halaxe xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak. Kobratu beharrekoari, berriz, legez ezarritako errekarua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutzen interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2020ko uztailaren 14a

*Alkatea*

**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**